

Betiko giroa bueltatu da

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, erromeria egin dute Azkorteko baselizan / 9

TXINTXARRI

Espazio falta azaleratzen

Lasarte-Oriako gazte mugimenduak aldarrikapen eta ospakizun eguna egin du, eta kaleak hartuko dituela aldarrikatu / 8

**Nerabeentzat
hizkuntza politika
antolatzeko gakoak
eman dituzte
XIV. Udaltopen / 2**

**Sei urteren ostean,
euskararen jai
handiak hartuko
du Lasarte-Oria,
udazkenean / 3**

**Hondakinen
ordenantzari
erreklamazioak
jartzeko epea
ireki du udalak / 5**

**Hilaren 16tik 28ra
Udaberriko Festa
antolatu du Aterpeak,
herriko komertzioa
sustatu asmoz / 6**

**Lasarte-Oriak
Herriarteko eskuzko
txapelketako
kanporaketa jokatu
du hilaren 14an / 10**

**Ostadar Saskibaloia
saileko infantil txiki
taldeak Gipuzkoako
txapelketa eskuratu
du, Oiarso garaituz / 11**

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



bertako
igogailuak | ascensores
www.bertako.eus



ZULORA JAUSITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATZEA



HARRAPATZE
EGOERAK



IGOGAILUKO
ZARATAK



365/24/7

ARABA
945 712 822

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

NAFARROA
848 870 917

Elkarlana izango da atea irekiko duen giltza

16 urte arteko nerabeentzat hizkuntza politika "eraginkor" bat josteko bidean, ideia eta gogoetak partekatzen ari dira XIV. Udaltopen. Bi urte eta gero, ohiko plazaraz itzuli dira, Manuel Lekuona Kultur Etxera. Lankidetzaz "funtsezkoa" dela errepikatu dute, etengabe

Iñigo Gonzalez Sarobe

Eskolak bakarrik ezin badu... Zer eta nola egin behar dugu udalerrian hobeto 16 urte bitartekoentzat hizkuntza politika egokia antolatzeke? galderari erantzuteko ideiak eta gakoak partekatzen ari dira XIV. Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketetan. Lehen saioak atzo egin zituzten, hilaren 12an, non eta Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan; bi urte eta gero, ohiko plaza berreskuratu du egitasmoak, eta nabaritu da horretarako gogoz zaudela antolatzaile eta partaideak, hitzaldiak hasi aurretik ugariak izan baitziren besarkada, muxu eta irribarreak. Antolatzaileek ezagutarazi dute 270 lagunetik gorak eman dutela izena, tartean, Kataluniako 31 hizkuntza teknikariek. Pilar Kaltzada aurkezleak katalanez egin zien ongi etorria.

Agustin Valdivia alkateak agurtu zituen aretora bertaratu ziren 150 bat lagunak eta lehen saioa sarean jarraitu zutenak. Azpimarratu zuen ez dela erronka makala 16 urte arteko gazteentzat "hizkuntza politika eraginkor bat" egitea; ate hori irekiko duen giltza "guztien arteko elkarlana" izango dela esan zuen, eta hori gauzatzen laguntzeko prest dagoela Lasarte-Oriako Udala. "Gogo biziz prestatu dugu

aurtengo jardunaldia: begiak zabalik eta begiak erme, goza ezazue topaketaz".

Gipuzkoako ahaldu nagusi Markel Olanok eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordokik hartu zuten Valdiviaren lekukoa. Kaltzadaren galderak adi entzun, eta aurtengo Udaltopen gaiari heltzeko zenbait gako eman zituzten. Antxordoki: "Eskolarekin ez da nahikoa: gazteek euskaraz egin behar dituzte haien aisia orduak, gustura dauden orduak; zentzu horretan, Lasarte-Oriaren lanean ari gara hainbat eragilerekin, proiektu erakargarriak egiten". Norabide horretan, Olanok argi du "eusalgintzarekin elkarlana" dela bidea. "Orain arte egindakoa oso garrantzitsua izan da, ez bairik gabe, baina ez da nahikoa; aurrera begirakoa josteko, esperimentazioa da gakoa".

Eusko Jaurlaritzaz; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiak; Nafarroako Gobernua; Euskal Hirigune Elkargoa; eta

270 LAGUN BAINO GEHIAGOK EMAN DUTE IZENA, TARTEAN, KATALUNIARI 31 TEKNIKARIK

Lasarte-Oriako Udala. Erakunde horiek antolatu dute XIV. Udaltop, eta lehen egunean idatzi bateratu bat plazaratu zuten, aurkezleak irakurri zuena. Adierazi zuten erronka dela "haur eta nerabeak euskal hiztun osatuak izateko baliabideak jartzea". Horretarako, uste dute mugarririk dela "hizkuntza zein hezkuntza eragileen arteko lankidetzaz".

Bi sail horien buru gisa jardun ziren Bingen Zupiria eta Jokin Bildarratz, Eusko Jaurlaritzaren izenean. Aitortu zuten badagokiela euskararen erabilera sustatzeko politikak garatzea. "Errealitate soziolinguistikoa anitzak kontuan izan behar ditugu: gazteek euskararekin dituzten pertzepzio, bizipen, gaitasun eta erabilerak askotarikoak direlako".

Nafarroa eta Ipar Euskal Herria

Jarraian, Nafarroako Gobernuak kontseilari Ana Ollok lurralde horren errealitatea partekatu zuen ikus-entzuleekin, eta etorkizuneko erronkak aletu: "Zeharkakotasuna, euskara arlo orotan sustatzeko; elkarlana, eskolan ikasitako euskara bertatik at erabiltzeko aukera emateko; eta eragileei laguntza gehiago ematea, euskarazko aisialdi aukerak ugaritzeko".



Antxordoki eta Olanok egin zuten lehen eguneko hasierako hitzartzea. TXINTXARRI



Bi urte eta gero, partaide askok berriro ikusi dute elkar. TXINTXARRI

Nafarroatik Ipar Euskal Herrira egin zuten jauzi, ondoren. Seaskan eta Ikastolen Elkartearen teknikari lanak egiten dituen Xan Airek hartu zuen hitza. Aipatu zuen, batez ere, bi esparrutan eragin behar dela, "ikastoletan eta plazetan". Azkenaldian erabilera neurketa ugari egin dituztela gehitu zuen: "Lehen Hezkuntzan baina gutxiago mintzatzen dira euskaraz DBHn; Batxilergoan, aldiz, igo egiten da berriro hiztunen portzentajea".

Atsedendialdiaren ostean, Euskal Herriatik Kataluniara bidaiatu zuten, Omnium Cultural eta

Consell Escolar de Catalunya-ko ordezkari Marina Gay i Faura eta Jesus Vinyas i Cirera-ren eskutik. Goiza bukatzeko, Berritzegune Nagusiko eta Irungo Berritzeguneko Joseba Ibarretxe eta Aitor Biain jardun ziren.

Araeta jatetxean bapo bazkaldu, eta jolas kutsua eman zioten arratsaldeari, *Egunean behin ez, baina urtean behin?* ariketaren bidez.

Bigarren eta azken jardunaldia gaur egingo dute, hilak 13. Besteak beste, Soziolinguistika Klusterreko kide Pablo Suberbiola herritarrak hitz egingo du.

Musika zein dantza eskoletan izena emateko epea, zabalik

Lasarte-Oriako Udalak ezagutarazi du hilaren 20a dela bietan aurrematrikula egiteko azken eguna

Txintxarri

Datorren ikasturtean ere aukera izango dute herriko gaztetxoek Udala Musika Eskolan nahiz Dantza Eskolan ikasteko. Matrikula ekainaren 13tik 24ra egin beharko dute, baina,

horretarako, aurrematrikulatuta egon beharko dute. Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi duenez, tramite hori burutzeko epea irekita dago, eta azken eguna hilaren 20a izango da, ostirala.

Musika eskolako ikastaroren bat -www.txintxarri.eus atarian kontsulta dezakezue zeintzuk diren- egiteko tokia eskatzerako garaian, matrikularen %10 ordaindu beharko dute herritarrek; posta elektronikoko bidez jakinaraziko die udalak onartuak izan diren edo ez. Gaztetxartela dutenek %10eko hobaria izango dute, eta familia ugaria dutenek, %30ekoa. Azken onura hori jaso ahal izateko, familia unitate bereko bi kide edo gehiago apuntatu beharko dituzte.

2022-2023 ikasturtean Dantza Eskolan ikasten duten lasarteoriarrek urriaren 3an hasiko dute kurtsua, udalak ezagutarazi duenaren arabera. Udala Musika Eskolan bezalatsu, aurrematrikula hilaren 20a arte egin ahaliko dute, eta matrikula, ekainaren 13tik 24ra.

Eskola egun eta ordutegiak ikasleen adinaren arabera finkatu dituzte arduradunek: 6 urte dituzten ikasleek astearte eta ostegunetan egingo dituzte saioak, 17:30etik 18:15era; 7

urtekoek, astelehen eta asteazkenetan, 17:30etik 18:15era; 8 urtekoek, astelehen eta asteazkenetan, 18:15etik 19:00etara; eta, 12 urte baino gehiago dituztenek, astelehen eta asteazkenetan, 19:00etatik 20:30era.

Herrian erroldatuta dauden ikasleek 30 euro ordaindu beharko dituzte hilabetero, eta ez erroldatuek, bikoitza, 60 euro. Gaztetxartela duten lasarteoriarrek %10eko deskontua izango dute.

Aurten bai; badator X. Euskararen Maratoia

Aurtengo urrian, sei urteren ostean, herriko euskararen jairik handiena bueltatuko da herrira. Maiatzaren 18an aurkeztuko dute aurtengo edizioa, kultur etxeko auditorioan eta 19:00etan. Herritarrek bertaratu daitezzen nahi dute antolatzaileek

Txintxarri

2020an egin behar zen X. Euskararen Maratoia, baina Koronabirusaren pandemia medio, antolatzaileek bertan behera uztea erabaki zuten. Aurten, ordea, osasun egoerak hobera egin duenez, Ttakun Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak euskararen jai handia egitea erabaki dute. Hala, Euskaraldia ere barne hartu nahi izan dute, eta Maratoialdia izena eman bi egitasmoak barne hartzen dituen ekimenari.

Sei urte itxaron ondoren, "ilusio eta gogo handiz" ari dira prestaketa lanetan. Zortzikotea martxan da dagoeneko, eta jada zenbait sorpresa prest ditu herritarrentzat. Maiatzaren 18an aurkeztuko dute X. Euskararen Maratoia. 19:00etan izango da Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan, eta saioaren amaieran, bertaratzen direnek mokadutxo goxoak dastatu ahal izango dituzte kultur etxeko kafetegian.

Aurtengoa ospakizun berezia izango da eta aurkezpena ere halakoa izatea espero da. Hainbat sorpresarekin batera, jaiaren xehetasunak, abestia, bideoklipa eta irudiak aurkeztuko dira, eta, baita zortzikoteko kideak ere. Bea Egizabal artista arituko da aurkezle lanetan.



Berriki egin dute antolatzaileek maratoiaren aurkezpena joateko deia. TXINTXARRI

Antolatzaileek lasarteoriatarak X. Maratoiaren aurkezpena gonbidatu dituzte. Ttakun Kultur Elkarteko lehendakari Mari Karmen Ormazabel: "Aurtengoa X. Maratoia da eta asko dugu ospatzeko. Orain arteko edizioetan milaka momentu gogoangarri sortu dira, eta aurten ere, beste horrenbeste sortzeko ilusioz gabiltza lanean". Nabarmendu du, aurtengoa nolakoa izango den eta bertan nola parte hartu ahal izango den jakin nahi dutenentzat galdu ezinezko hitzordua dela.

Udaleko Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordokik, berriz, adierazi du Euskararen Maratoia "tradizio handiko jai" dela lasarteoriatarrentzat, eta,

azpimarratu, bertan egindako lanak Euskal Herri osora zabaldu zirela Euskaraldiaren bidez: "Horrek erreferentziagune bihurtu du Lasarte-Oria euskalgintzaren esparruan". Pandemiagatik hamargarren edizioa atzeratu egin behar izan bada ere, aurtengo jai "are bereziagoa" izateko nahia agertu du. Euskaraldiaren urtea ere izanik, bi egitasmoak uztartu nahi izan dituztela ere ohartarazi du: "Udazken honetarako lasarteoriatarrentzako eskaintza berezia ari gara prestatzen Ttakun Kultur Elkartearekin batera". Udal ordezkariak bat egin du Ormazabalekin, eta aurkezpena bertaratu daitezela eskatu die herritarrei.



NEURE KABUZ
ASIER ODRIZOLA

Prezioak

Goranzko joeran dira aspaldian. Ahoz aho darabilgu arrangura moduko zerbait. Orain hilabete pare bat arte pandemia beste konturik ez genuen tertuliatan. Edozein kafetegiko terrazan, alboko mahaiaren elkarrizketari erreparatuz gero (nahi gabe, noski), COVIDak eragindakoak entzuten genituen aldiro. Albiste kontuetan erreleboa etortzen da ordea eta Ukrainako inbasioari egokitu ziztaion ardura hori. Ez dakit jabetzen ari ote zareten baina gerra hotsak berak ere galdu du hasierako "punta". Orain, batez ere herrialde batek beste bati egindako eraso militarren ondoriozko prezio igoera da protagonista. Lehengai asko nabarmen garestitu da, batik bat energia eta horrek berak dakar edozein gai produzitzaileko azken emaitzaren garestitzea. Baina badaude enpresa eta erakunde asko egoera behar bezala kudeatzen ari ez direnak, edo ez behintzat herritarren egoera kontuan hartuz eta hor herritarren keza ez da askorik nabarmentzen. Terrazatan bai, esanda bezala, gaizki esaka somatu daiteke edonor baina gero hori ez da gorpuzten eta ez dira esate baterako manifestazio jendetsuak egiten. Halakoetan beti etortzen zait gogora langabezia handiarekin ez baizik eta euren futboleko taldea administrazio arazoengatik bigarren mailara jaisteko arriskuarekin kale-erakustaldia egin zutela Vigon eta Sevillan. Gizartearen heldutasuna edo umekeria agertzen dira bistara halakoetan. Errezeloa daukat gizarte bateratuaren ahaleginaren ondorioz baino lehenago iritsiko dela ekaitz ondoko barea prezioak jaitsiko direlako, batek daki aldeko zein gertaerari esker.

Bertsolari Txapelketa Nagusia arituko da Ane Labaka Mayoz

2022ko udazkenean egingo da Bertsolari Txapelketa Nagusia eta parte hartzaile guztien artean arituko da Ane Labaka Mayoz herritarra. Lurraldeetako txapelketetan eskuratu dute bertsolarien txapelketa nagusian izena emateko aukera. Irailaren 24an abiatuko da norgehiagoka, eta, finala, berriz, abenduaren 18an jokatu dela iragarri dute.



Ane Labaka bertsotan. TXINTXARRI



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

BIZIPOZA elkartearen eskutik
MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT CD+DVD sorta bikoitza
zozkatuko ditugu izena ematen
duten bazkideen artean.

Eman izena maiatzaren 29a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean eta 646 82 44 66 (whatsapp)



Bizilagunekin bilera, plan zuzentzailea idazteko

Oztaran eta Arranbide auzoko Hirigintza Plan Zuzentzailea idazten hasiko dela iragarri du Lasarte-Oriako Udalak. Plan horren gaineko informazioa emateko bilera deitu dute, maiatzak 19an, osteguna, 18:00etan Arranbide auzoko udal lokalean (Arranbide 4)

Txintxarri

Oztaran eta Arranbide auzoko Hirigintza Plan Zuzentzailea idazten hasiko dela iragarri du Lasarte-Oriako Udalak. Plan horren gaineko informazioa emateko bilera deitu dute, hilaren 19an, osteguna, 18:00etan Arranbide auzoko udal lokalean (Arranbide 4)

Plan hori idazteko auzotarren parte hartzea ahalbidetu nahi du udalak, eta horretarako, Oztaran eta Arranbideko bizilagunekin bilera bat deitu du. Deialdi horretara joan daitezen animatu nahi ditu.

Aurreratu du informazioaren arabera, honako zazpi ardatzak

izango ditu plan zuzentzaileak: auzoaren eta Lasarte-Oriako gainerako auzoen arteko irisgarritasuna eta konektagarritasuna; eraikinen eta espazio publikoaren arteko harremana hobetzea; espazio libreen azalera handitzea eta hobetzea; ibilgailuak aparkatzeko guneen proposamena; auzoa genero-ikuspegitik hobetzeko azterketa, egon daitezkeen puntu beltzak kontuan hartuta; eraikinak birgaitzea: irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna; eta eraikinen estalkiak aprobetxatuz energia komunitateak lortzeko proposamenak.

Fase ezberdinak izango ditu. Hiru zati nagusi hauetan oinarrituko da: hasierako diagnostikoa, diagnostiko parte hartzailea eta azken dokumentua.

Auzotarrei laguntza eske

Aipatu Hirigintza Plan Zuzentzailea burutzeko auzoetako bizilagunen laguntza behar du udalak: batetik auzoaren eta bertako eraikinen inguruko informazioa biltzeko eta, bestetik, aurrera begirako hobekuntzen proposamenak zehazteko.

Izaera orientagarria izango du, eta ez arautzailea. Oztaran eta Arranbiden jarduteko jarraibide orokorrak ezarriko



Oztaran eta Arranbideko bizilagunekin bildu nahi dute udal ordezkariak. TXINTXARRI

dira, publikoak zein pribatuak (eraikinak birgaitzea, aparkaleku pribatuak), eta jarduketa eta eraldaketa estrategia bat ezarriko da, faseka gauzatuko dena.

Prozesuan bizilagunak parte hartzea nahi du udalak; horien iritziak jakin eta horren arabera

egokitze dokumentua. Informazio hau bildu asmo du: bizilagunek eraikinen birgaitzeari dagokionez dituzten aukerak eta benetako beharrak; eta herritarrek planaren beste ardatzei dagokienez egin beharreko gainerako jardueri buruz duten iritzia.



Lau urteko iraunaldia gainditu aurretik garatu nahi du udalak II. Berdintasun Plana. TXINTXARRI

Eragileekin landu nahi du Berdintasun Plana

Lau urteko iraunaldia gainditu aurretik garatu nahi du Lasarte-Oriako Udalak II. Berdintasun Plana, eta herri eragileak gonbidatu ditu lan horiek elkarrekin egitera. Uste du berdintasunak "guztion konpromisoa eta parte hartzea" eskatzen duela

Gizarte Zerbitzuen Sailak baliabiderik ez duten emakumeekin edo tratatu txarrak jasan dituztenekin egiten duen lana ere balioan jarri nahi izan du erakundeak.

Lasarte-Oriako Udalak 2016-2019ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako lehen Plana egin zuen. Kanpo aholkularitza batek baloratu zuen 2020an, eta txostena hobetzeko hainbat gomendio eman zizkion erakundeari. Horren ostean egin zuen II. Berdintasun Plana (2021-2025), aurrekorentzako jasotako gomendioak kontuan hartuta.

Bigarren hori hezurmanitzeko, parte hartze prozesu zabal bat egin asmo zuen udalak, baina

COVID-19aren pandemiak dokumentua hobetu zezaketen elkarrizketa asko egitea eragotzi zuela nabarmendu du.

Gogorarazi du udalerriko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat dela, eta bertan zehazten direla emakumeen eta gizonen arteko tratatu eta aukera berdintasuna lortzeko udaleko sailek aplikatu beharreko neurriak zeintzuk diren.

Honako sei helburu hauek ditu planak: hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko eskuliburua egitea; hizkuntza inklusiboa pixkanaka txertatzea; Lasarte-Oriako elkarteei aholkularitza eta prestakuntza eskaintzea beren

jardueretan genero ikuspegia txertatzeko; hezkidetzari eta indarkeria matxistaren prebentzioari buruzko prestakuntza antolatzea; diskriminazio anizkoitza duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden emakumeen egoerari buruzko azterlan bat egitea; eta Berdintasunaren arloko sentsibilizazio ekintzak sustatzea kirol lehiaketetan, kiroldegietan eta abar.

Berdintasunak "guztion konpromisoa eta parte hartzea" eskatzen duela azpimarratu du, eta berretsi, berdintasunaren alde herritarrekin lan egiteko prest dagoela.

Txintxarri

Iazko maiatzeko ohiko udalbatzarrean onartu zuten aho batez II. Berdintasun Plana, eta lau urteko indarraldia duenez, hori garatzeko gizarte eragileak gonbidatu ditu Lasarte-Oriako Udalak, prozesuan parte hartzera. Jakinarazi du aipatu dokumentua lantzeko

berdintasun teknikari bat kontratatu duela eta ekainean hasiko dela lanean.

Nabarmendu du beharrezkoa dela "benetako berdintasunaren aldeko apustua" egiten dutenak elkarrekin aritzea, eta azpimarratu, Lasarte-Oriako Udaletik lan asko egin dela, betiere lasarteoriatarren eskutik.

Hondakinen ordenantzari alegazioak jar zaizkioke

Dokumentua Lasarte-Oriako Udalaren webgunean irakur daiteke, Herritarren Partaidetza atalean. Hilaren 27a baino lehen erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bazaio txostenari, behin-behinean hartutako erabakia behin betiko bihurtuko da

Txintxarri

Udal korporazioak behin-behinean onartu du Etxeko eta merkataritzako hondakinen ordenantza. Erabaki hori behin betikoa izan aurretik, txostena jendaurrean jarri du, hamabost egunez, herritarren batek hala nahi badu erreklamazio edo iradokizunen bat jar diezaion. Hori egiteko azken eguna hilaren 27a izango da, ostirala. Dokumentua udalaren webgunean irakur daiteke, Herritarren Partaidetza atalean, esteka honetan: <https://www.lasarte-oria.eus/eu/-/aprobacion-inicial-ordenanza-sobre-proteccion-del-medio-ambiente-contrala-emision-de-ruidos-y-vibraciones>. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu eta hamabost egunera sartuko litzateke indarrean araudi berria.

Europatik datozen "prebentzio, murrizketa, berrerabilpen eta birziklatze xedeak betetzea" da ordenantza bat idatzi izanaren



Hipodromo etorbideko edukiontzia. TXINTX.

helburu nagusietako bat, udalak zehaztu duenez. Norabide horretan, onartu du herriko gaikako bilketa tasa ez dela iritsi "lortu nahi den mailara": gaur-gaurkoz %46aren bueltakoa da. Esate baterako, 2025erako hondakinen %55

birziklatu beharko direla esan du Europak; 2030erako, %60a; eta 2035erako, %65a. Xede horiek betetzeko, udalak uste du "ezinbestekoak" direla "herritarren parte hartzea eta inplikazioa", eta ordenantza idatzi dela "ingurumenaren arloan anbizio handiz ezarritako helburu berriak betetzeko, klima aldaketaren aurka borrokatzeko eta osasun publikoko politikak betetzeko".

Erraustegira martxa

Zubietako erraustegiaz...zer ez digute esaten? lelopean, Erraustetaren Aurkako Mugimenduak martxa egingo du Zubietako erraustegiraino hilaren 14an, larunbata. Ekimena Okendo plazatik abiatuko da, 11:00etan. Joaldun talde bat eta Elektropapo elektrotarangak girotuko dute ibilaldia. Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak bat egin du jarduerarekin eta herritarrek animatu ditu horretan parte hartzera.



Astean sei orduko errefortzu eskolak jasotzen dituzte ikasleek. USURBILGO L. ESKOLA

Ikasleei prestakuntza osagarria emango die ULEk

Gazteen STEAM gaitasunak indartzea da zentroaren asmoa, lan mundura igarotzerakoan formatuago egon daitezen

Txintxarri

Usurbilgo Lanbide Eskolak (aurrerantzean, ULE) iragarri du Lanbide Heziketa egitea aukeratzen duten ikasleei aukera emango diela unibertsitate prestakuntza osatzeko, STEAM gaitasunak indartzearen bidez. "Azken urteetan DBHko gero eta ikasle gehiagok aukeratzen dute gugana etortzea, eta etorkizunean unibertsitateara joan ahal izateko formakuntza osagarria emango diegu, ondoren lan mundura igaro daitezten".

Batxilergoan gehien lantzen diren alorrak sendotzea da

ULeren helburua, eta, horretarako, astean sei orduko indartze eskolak eskainiko dizkie gazteei, alor hauetan: Robotika eta Programazioa, Matematika, Fisika, Kimika, Gaztelania eta Filosofia.

Izena emateko epea, zabalik

Datorren ikasturtean erdi edo goi mailako zikloren bat egin nahi dutenek hilaren 27ra arte eman dezakete izena. Edozein zalantza argitzeko, 943-36 46 00 telefono zenbakira deie edo adkomunikazioa@lhusurbilgo.eus helbide elektronikora idatz dezakete.



SARE LASARTE-ORIA

Aldarrikapen kilometroak egin dituzte Orion

Izan Bidea egitasmoaren barruan, Sare Herritarrek aldarrikapen ekintza bat egin zuen Orion, hilaren 7an. Dozenaka lasarteiatarrek parte hartu zuten ekimenean. Erronka urriaren 8an amaituko du eragileak, euskal presoaren eskubideen, bizikidetzaren nahiz

bakearen alde 3.127.326 kilometro egitea, Euskal Herrian adina biztanle adina kilometro, hain zuzen.

Erronka horren bitartez, euskal presoek ezarritako salbuespeneko espetxe politika bertan behera uzteko "Euskal Herriak duen nahia" islatzen ari da eragilea.



TXINTXARRI

Aiton-amonak aztoratu ditu

Panta Rhei antzerki taldeak Noa uy uy uy familia ikuskizuna ekarri zuen Manuel Lekuona Kultur Etxera, hilaren 7an. Hezur-haragizko pertsonaia eta txotxongiloak batzen dituen obran, egun batzuk pasatzera joango den Noa bilobak hankaz gora jarriko du aitona-amonen lasaitasuna. Haurrak ia hiru urte ditu, librea, ipurtarina, bihurria, jostalaria eta barregarria da.



Aterpea Merkataria eta Ostalarien elkarte kideak eta Agustin Valdivia alkatea, aurkezpenean. TXINTXARRI

Udaberri Festa, komertzioa sustatzeko

Hilaren 16tik 28ra Aterpeako dendetan erosten duten herritarrek 2.000 euroko erosketa bonuen saria eskuratu ahalko dute. Ikastetxeetako haurren marrazki erakusketa izango da, baita eskaintza berezi, kontzertu, tailer eta txu-txu trenaren ere

Txintxarri

Aterpea Merkataria eta Ostalarien elkarteak Udaberri Festa aurkeztu zuen hilaren 11n, Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak lagunduta.

2022. urteko lehen kanpaina hilaren 16tik 28ra antolatu du herriko elkarteak eta bi ardatz nagusi izango ditu, elkarteak lehendakari Miguel Angel Prietok azaldu modura.

Lehen 2.000 euroko balioa duten erosketa bonuen zozka da. Kanpaina iraun bitartean ondorengo orrialdean zehaztuta dauden komertzioetan erosketak egin eta parte hartze txartela

beretzen duten herritarrek eskuratu dezakete saria.

Bigarren ekimena haurren marrazki erakusketa da. Aurten Herrien arteko elkartasuna izan da gaia eta Sasoeta-Zumaburu zein Landaberriko Lehen Hezkuntzako 696 ikaslek parte hartu dute ekimenean. Marrazkiak Aterpeko 46 dendetan banatuko dira. Maiatzaren 16tik 20ra haur bakoitzak bere lana bilatu eta oroigarri bat jasoko du hori aurkitzean. "Haurrek eta gurasoek gure herrian dauden komertzioak ezagutzeko beste era bat da", azaldu du Aterpeko arduradunak.

Era berean, eskerrak eman dizkie ikastetxe, zuzendari eta irakasleei eskaintako laguntzarengatik.

Beste ekitaldiak

Horiez gain, beste ekitaldi berezi batzuk ere izango dira hilaren 27an eta 28an, kanpainari era ezin hobean amaiera emateko.

27an, egun osoan zehar, eskaintza bereziak izango dira Aterpeko bazkideen establezimenduetan. Hala nola, arratsaldean Buenetxea kafe tabernan patata minak eta garagardoa eskatzen dituzten herritarrek bost euro ordainduko dituzte.

Arratsaldean, berriz, haurrei zuzendutako lau tailer eskainiko

dira. Ormazabal loradendan landareak nola landatu ikasiko dute; Ola Enmarcacion dendan mural bat egingo dute haur eta gaztetxoek marrazkiekin; Nahio Arropa dendan poltsa bat apainduko dute; eta Dulce Tentacion dendan, berriz, paperezko panpinak egingo dira.

Musikak ere izango du bere tartea. DJ baten zuzeneko saioaz gozatu ahalko da Nahio arropa dendan, 17:00etan eta 19:00etan, Arkupe tabernako inguruetan dauden herritarrek rock kontzertuaz gozatu ahalko dute.

Azkenik, larunbatean, 28an, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, txu-txu tren batek herriko kaleak zeharkatuko ditu. Okendo plazan izango du geltokia.

Aurkezpenari amaiera emateko, Aterpeko eskerrak eman dizkio udalari eta Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Komertzio sailari Horrelako ekimenak antolatzeke eskaintzen duten laguntzarengatik.


Agustin Valdivia alkateak herritarrek gonbidatu ditu Udaberri Festa komertzio ekitaldietan parte hartzera: "Balio handia da herri batek komertzioa izatea. Horregatik, garrantzitsuak dira horrelako ekimena, herritarrek Lasarte-Oriako dendak ezagut ditzaten".

Argazki lehiaketako irabazleak ditugu

Txintxarri

TXINTXARRI aldizkariko Aste Santuko oporraldiko argazki lehiaketak baditu irabazleak: Albiñe Larrañagaren *Negu beltz osteko irrifar argiak* argazkia izan da bozka gehien lortu dituen, eta hortaz, lehen sailkatua. Zorionak! Errigorako otar bat irabazi duzu!

Bestalde, epaimahaiaren arabera (Idoia Telleria, Isaac Farre eta Txema Valles) *(Des)konexioa* irudia izan da onena. Enara Ieregi da egilea eta Avenida tabernako bi menu eskuratu ditu! Mila esker parte hartzaile guztiei!



Hauek dira TXINTXARRI aldizkarian antolatu dugun Aste Santuko oporraldiko argazkien lehiaketara aurkeztutako irudi guztiak.



Udaberriko

festak

Kontsumitu ezazu
Lasarte-Orian maiatzaren
16tik 28ra, eta parte har ezazu
erosketa-bonoen zozketan.

2.000€

saritan

Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda

ADATS ORRAZTEGIA	EGUZKI TABERNA	PELUQUERÍA MANI'S
ADMON. DE FINCAS MILLA	ELECTRICIDAD ARREGUI	PELUQUERÍA MARBELL
ADMINISTRACIONES BARDAJI	FERRETERÍA SUKOA	PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA
ALBA MODA	FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA	PELUQUERÍA Y ESTÉTICA SPLENDOR
AMA YOGA	LOTERÍA IZAGUERRI+C	PERFUMERÍA MAIANE
ARAETA SAGARDOEGIA	MABEL MODA	PUERTAS Y VENTANAS ZURLAN
ARKUPE TABERNA	MASAJISTA RAKEL	SANTANA INFORMÁTICA
ARTESANÍA INÉS FLORES	MAYA LENTZERIA	SILVIA LUIS ARBIZU ADMON. DE FINCAS
ARTSIER FOTÓGRAFO	MERCERÍA ARITZA	GESTORÍA BETELU
AVENIDA TABERNA	MERCERÍA MAUXA	GIMNASIO SAITO
BAR ALAI	MERCERÍA OLMÍ	HALCÓN VIAJES
BAR LASARTE	MULTIÓPTICAS LASARTE	HAUNE INTERIORISMO
BAR ORIA-TXIKI	NAHIO ARROPA DENDA	HIRU ALDETA TABERNA
BAR-CAFETERÍA BUS	NATURHOUSE	IMAGINE JANTZI DENDA
BERASATEGI KAFEAK	NOAOA BIDAIAK	INMOBILIARIA RK
BIDEO LAGUNAK	NOGUES MODA	KAIZEN MUEBLE Y DECORACIÓN
BIZKER RÓTULOS	NORTH TEAM NUTRIZIOA	LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL
BOTE TATTOO	OIHANA ESTETIKA	SORAYA GALLEGU MICROPIGMENTACIÓN
CAFÉ-BAR BUENETXEA	OLA ENMARCACIÓN	TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK
CALZADOS LEDER	ÓPTICA IRIGOYEN	TXEMA VALLES - PUBLIBROCK
CARREFOUR EXPRESS	ÓPTICA LIZARRI	URRUZOLA MERTZERIA
CENTRO DE MASAJE KIMA	ORBELA EKODENDA	VENTANAS ALCAR
CLÍNICA DENTAL ALDAZ	ORMAZABAL LORADENDA	VENTANAS ISU LEIHOAK
CLÍNICA PODOLÓGICA AMAIA OLONDRIS	ORUE BOTIKA	VIÑA DEL MAR KAFETEGIA
COCINAS, BAÑOS Y REFORMAS CLOVER	OSTEOPATÍA NOELIA CALERO	ZAPATERÍA ITURBE
DECO 75 TEXTIL HOGAR	PELUQUERÍA BEA	ZUBIETA MOTOR
DULCE TENTACIÓN	PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA	



LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



aterpea



Ordubeteko mahai inguruaren ostean, gazteek elkarretaratzea egin zuten Okendo plazan. TXINTXARRI

Espazioarekin duten gatazka azaleratu dute

Lasarte-Oriako gazte mugimenduak aldarrikapen eta ospakizun eguna egin du maiatz hasieran, egunerokoan espazioarekin dituzten arazoak mahai gaineratu eta kaleak hartuko dituztela nabarmentzeko. Goizetik iluntzera arteko egitaraua aurrera eraman dute

Maitane Aldanondo

Zereginenez betetako eguna izan zuten herriko gazteek hilaren 7an. Guztietan lehena, Okendo plazan egin zuten mahai ingurua. Udaletxeko arkupe aurrean biribila osatu zuten lurrean eserita eta hamaiketako aurrean zutela, solasaldiari ekin zioten. Usurbilgo gazte asanbladako kide

baten ahotik aurreko gaztetxetik egungoa lortu harteko bidearen berri izan dute, hasieran Izar Agirretxeren galderek gidatuta. Hango eta hemengo testuingurua oso bestelakoa dela argi gelditu zen, bereziki, udalarekiko harremanean. Batean erraztasuna dena, zailtasuna besterik ez da bestean. Haien ibilbide eta

eskarmentutik herrian bidea urratzeko irakaspenak eta aholkuak hartu nahi izan zituzten.

Ordubete luzez solasean aritu eta gero, atsedean labur baten ondotik, elkarretaratzea egin zuten zabalgunean bertan. *Gazteok espazio publikoa hartuko dugu* zioen pankarta atzean jarri ziren eta handik entzun zuten kideetako

batek gazte mugimenduaren izenean irakurritako adierazpena. Udalak leku publikoak erabiltzeko jartzen dizkien oztopoak gaitzetsi eta haien aurka egiteko nahia berretsi zuten. "Udala herritarroi laguntza eta baliabideak eskaintzen dizkigun erakunde publiko izatetik oso urrun dagoela deritzogu, nazkatuta baikaude zerbait antolatu nahi dugun aldiro trabekin tOpo egin behar izateaz".

Alboko herrietara joan beharra

Batetik, erreserbak egiterakoan udalak elkarte ofizial bateko kide izatea exijitzen die eta hainbatetan eskaerei ezikusiarrena egiten die, alegia, ez die erantzunik ematen, aurrera eraman nahi dituzten ekintzak "askatasunez garatzea" mugatuz. Bestetik, herriko "azpiegitura falta dela-eta" aisi jarduerak egitera alboko herrietara joatera behartuta daude. "Musika sortzeko, kultura kontsumitzeko, jarduera fisikoa libreki eta doan egiteko espazioak botatzen ditugu faltan, eta zer esanik ez formazio politiko ezberdinak lantzeko". Are gehiago, zenbait gazte sortzailek euren lanak plazaratzeko zailtasunak dituztela nabarmendu zuten, baita salatu ere sarri euren lana "gutxietsi" egin dela "kultur eskaintza duin bat ez dela argudiatuz", eta haien orde "estatu mailako konpainia profesionalei leku eginez".

Horrez gain, gazteei begirako azpiegitura beharko lukeen Gaztelekua "udalak eta bertako

pertsona helduek" kudeatzen dutela eta gazteek ez erabakiguneetan ezta programazioan ere parte hartzerik ez dutela gaitzetsi zuten.

Guneen erabileratik haratago, udalak etxebizitzetan eta eraikuntzan gauzatutako inbertsio "ikaragarriak" ere salatu zituzten, "ez baitira herritarren beharrak asetzeko, Lasarte-Oria Donostiaren periferia bihurtzeko baizik". Etxe hutsak egonda ere alokairua ezin dute ordaindu, "gurasoen etxeetan bizitzera kondenatuta gaude".

Egoera ez da berria, horrexegatik, libreki kudea dezaketen espazio autogestionatu baten beharra adierazi zuten, "zeinetan feminismoan eta elkar zaintza oinarriturik elkarlanean aritu nahi duen pertsona orok lekua izango duen". Ez dute bertan udalaren esku-hartzerik nahi, bere irizpide ekonomiko eta politikoekin ados ez baitaude.

Aurrerantzean aferari loturik dinamikak martxan jarri nahi dituzte eta haietan parte hartzera gonbidatu zituzten bertaratutakoak, dituzten "iritzi, behar, ikuspuntu, kezka eta nahiak partekatzea".

Xirimiri elkartean bazkaldu zuten, lagun artean, eta bingoan jolastu bazkalostean. Ondoren, Okendora bueltatu ziren olimpiadak jokatzera. Hartu nahi dituzten kaleetan barrena ere ibili ziren erromerian, arratsaldeko azken ordurako antolatuta zituzten kontzertuen aurretik.

Herriko bi elkarte ariko dira Munduko Dantzak egitasmoan

Abarka GKEak herritarrak komunitatean bizitzeko beharraz kontzientziatzeko topaketa bat egingo du Oiarzunen

Txintxarri

Munduko Dantzak egitasmoa sortu du Abarka Gobernu Kanpoko Erakundeak. Horren bidez, Oiarzunge herriari eta munduari erakutsi nahi dio dantza modu bat dela komunitatea sortzeko eta kohesioa indartzeko. Topaketa bat egingo dute hilaren 14an, 11:00etatik 13:00era. Hamar dantza talde gonbidatu dituzte, eta bi Lasarte-Oriakoak dira: Kukuka Antzerki eta Dantza Eskola eta Semblante Andaluz.

Dantza "herrien benetako adierazpena" dela iritzita,

munduko toki ugariatako hamar dantza talde elkartuko ditu Abarkak, Oiarzunge Done Eztebe plazan. 11:00etatik 13:00era topaketa egingo dute, eta ondoren, luntxa, "partaideek elkar ezagutzeko aukera izan dezaten", antolatzaileek nabarmendu dutenez. Munduko Dantzak egitasmoaren barruko jarduerak da, bi ordukoa: "Beste toki batzuetako koreografiak eta musika erritmoak aurkeztuko ditugu udaletxeko plaza nagusian; gertutik, beste leku batzuetara bidaiatuko dugu".



Kukuka izango da Oiarzunen dantzatzeko duen taldeetako bat. TXINTXARRI

Abarkako lagunek zehaztu dutenez, sortu duten egitasmoak hiru xede nagusi ditu: Oiarzunge komunitateari zein inguruko herrietakoei euren kaleak partekatzen dituzten kulturetako kideak hurbiltzea;

herritarrak sentsibilizatzea komunitatean bizitzeko beharraz, gainerako errealitate guztiak kontuan izanda; eta ikaskuntza sustatzea, autoikaskuntzaren nahiz entretenimenduaren bidez.

Sokadantza prestatzeko saioak hasi ditu Erketzek

Erketz dantza taldeak jakinarazi du entsegu saioak prestatu dituela, ekainaren 23ko San Joan suko sokadantza prestatzeko. Garaikoetxea-Landaberri ikastetxeko patioan elkartuko dira, asteartero, 20:00etan. "Parte hartu nahi duten herritarrek bertara joan besterik ez dute; hori egitera animatzen ditugu", adierazi dute Erketzeko kideek.

Ondo bidean, Andatza plazan ospatuko dute San Joan bezpera, bi urte eta gero. Lasarte-Oriako Udalak ezagutarazi du 22:15ean hasiko dela ekitaldia, eta Erketz EDTz gain, Alboka abesbatzak eta Zero Sette Akordeoi Orkestrak parte hartuko dutela. Sua ere piztuko dute.

Erromeria itzuli da Azkorterera

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, erromeria egin dute Azkorten. Eguraldi ona eta azken urteetako hutsunea osagai aproposak izan dira baselizara jende ugari bertaratzeko. Meza, erromeria, bertsolarien saioa eta herri kirolek osatu dute egitaraua

Maitane Aldanondo

Ohiturari eutsi diotenez oinez egin zuten Azkorterera bidea hilaren 8an, eta 11:00etako meza entzun. Batzuek Buruntzan gora egitea nahiago izan zuten, beste batzuek egindako biderearen ondoren, indarrak batzea. Barrura egin zutenek, baseliza bete zuten eta meza amaieran, apaizak bedeinkapena eta ondo pasatzea opa egin zien. Batzuen erantzuna *Zorionak zuri* abestea izan zen, apaizak zer ospatu bazuen seinale.

Elizkizuna amaituta, Ttakun Kultur Elkarteak jarritako postura jo zuten gehienek. Aukeran odolki, txorizo eta haragi egosi ogitaratekoak zituzten mokadu, eta edateko sagardoa eta ura izan ziren izarrak. Beste batzuetan ez bezala, Biyak Bat adinekoen egoitzak ez zuten posturik jarri, beraz, erruz lan egin dute "tabernan" ibili zirenek. Makina bat pintxo prestatu zuten, ogi artean zer jarri gabe amaitu arte. Gehiago izan balute, akaso, horiek ere salduko zituzten...

Ahots faltagatik, Lierni Rekondo bertsoan aritzeko bikote gabe geratu zen, baina

ermitaren bueltan topatu zituen oholtzan lagun izango zituenak. Erromeria hasierako tartean Iker Ormazabalekin batera aritu zen. Jendea hitz eta pitz, elkar agurtzen, hamaiketakoak jaten edo erosten ari zen une horretan. "A su bola" zebiltzala iruditu zitzaion Rekondori eta bertso eskolan balego bezala sentitzen zela bota zion Ormazabali. Eguzkipean aritu ziren itzal apur bat emango ziren estalki edo gurutzerik gabe.

Erromeria eta herri kirolak

Bertsotan amaitu zutenean, Ttiriki Ttarraka eskolako lagunek girotu zuten hamaiketakoak, dantzarako gogo gutxi baitzuten han elkartutakoek. Kosta zitzaien, baina lortu zuten batzuek horretara animatzen, tamalez, bukatzeko ordua gertu zela izan zen. Bien bitartean, zabalguneko erdigunean dena prestatzen aritu ziren, eguerdian aurrera eramane zuten herri kirol erakustaldirako.

Aimar Irigoien harri jasotzaile erreizildarra eta Beñat Telleria herritarrak aritu ziren, batetik, eta Aratz Muguertza aizkolari

mutrikuarra eta Julen Gabirondo urnietarra, bestetik. Lehen lanean bi minutuan ahal bezain bestetan altxatu zuten Telleriak 125 kiloko zilindro kopa, eta Irigoienek, aldiz, 150 kiloko kuadroa. Ondoren, aizkolarien txanda izan zen, kolpe gutxiagoan egurra nork moztu. Txandaka aritu ziren azken proban izan ezik. Konbinadan, Telleria eta Gabirondo Muguertza eta Irigoienek aurka izan ziren. Lan guztiak amaitzen lehenak Telleria eta Gabirondo izan ziren. Trontzan bost korte egin behar zituzten, baina zerretako batek ez zuten behar bezala moztzen (trukatzeari argi ikusi zenez) eta hirugarrena ebakita amaitutzat eman zuten saioa, txalo artean.

Erakustaldiaren ondoren, erromeriak aurrera jarraitu zuten. Bertsolariak bueltatu ziren eszenatokira; Maddi Lasa eta Urko Ormazabal batu zitzaizkien aurretik aritutakoei. Urduri bazeuden ere, euren abilezia erakusteko gogoia izan zuten eta hala proposatu bazien ere, ez zuten Rekondok errimak txibatzerik behar izan.



Ttiriki Ttarraka eskolako lagunek lortu zuten batzuek dantzatzera animatzea. TXINTXARRI



Azkorterera joandako askok sagardoa edanez freskatu zituzten eztrariak. TXINTXARRI



Telleria eta Gabirondo izan ziren konbinadako lanak amaitzen lehenak. TXINTXARRI

Ikasturte amaierako emanaldiak hasiko ditu Albokak, Sorian

Bi urte eta gero, abesbatzako kideak herritik at emango dute kontzertu bat, sanpedroetako emanaldiaren aurretik

Txintxarri

Alboka abesbatzak herritik kanpoko kontzertuei berrekingo die hilaren 14an, larunbatarekin, Sorian. Bertako abesbatzak antolatu duen X. Ahots Jaialdian izango da, Auzitegi Jauregiko

antzokian. Emanaldia 20:30ean hasiko da, eta San Esteban de Gormaizeko abesbatza lagun izango du. Kontzertu horrekin hasiko da aurtengo ikasturteari amaiera ematen: ondoren etorriko dira San Pedro Jaiei aurrekari

izango den emanaldia eta Irunera zein Comillasera (Kantabria) egingo dituzten bidaiak.

Montse Latorreren gidaritzapean, hau izango da errepertorioa: *Hanaq pachap-Cussicuini* (anonimoa); *Kyrie* (Piotr Janczak); *Durme durme* (Audrey Snyder); *Izar ederrak* (Josu Elberdin); *Itsasoa laino dago* (Alexandre Lesbordes); *Maximina* (Julian G. Giraldo); eta *City of stars* (Justin Hurwitz). Oscar Gallardo piano jotzailea eta Carolina Muñoz perkusionista izango dituzte lagun.



Alboka abesbatzako kideak, Santa Zeziliaren omenezko emanaldian. TXINTXARRI

Azpeitia, aurkari gogorra Herriarteko txapelketan

Herriarteko txapelketako giroa izango da berriro ere Michelin kirol gunean. Hilaren 14an, Lasarte-Oriak txapelketako lehen kanporaketa jokatu du. Zail izango du final laurdenetara igarotzea, iazko garailea izango baitu aurrez aurre: Azpeitia

Txintxarri

Lasarte-Oriak Herriarteko txapelketan parte hartuko du. Hilaren 14an jokatu du lehen kanporaketa, 16:15ean Michelin kirol guneko pilotalekuan. Aurkari zaila du ordea, iazko txapelketan Azpeitia.

2015-2016 denboraldian jokatu zuen azkeneko Lasarte-Oriak Herriarteko txapelketa. Jose Felix Solano arduradunak azaldu digunez, "aurten taldea osatzea lortu dugu. Eta hemendik urte batzuetara arte ez dugu berriro aukera izango".

Prestatzaileak nabarmendu duenez, "pilota eskolatik datozen pilotariei bultzadaxo bat emateko balio du lehiaketak. Jubenilek eta kadeteek ez dute inoiz Herriarteko bat jolastu eta giroa ezagut dezaten nahi dugu".

Taldea osatu

Lasarte-Oriako ordezkariak Beñat Olazabal, Xuban Urdaleta eta Jokin Lizaso kadeteek,



Herriarteko txapelketa jokatu duen taldea eta Jose Felix Solano prestatzailea. TXINTXARRI

Haritz Diez de Gereñu eta Peru Urdanpilleta jubentilek eta Jon Pello Artetxe, Mikel Elola eta Haritz Urkia seniorrek osatuko dute.

Taldea osatzeko zailtasun txiki batzuk izan dituela onartu du: "Pilota utzita zuen Mikel Elola konbentzitu behar izan dugu

taldearekin bat egiteko. Partidarako prest izango da, ziur, baina ikusi beharko da nola moldatzen den".

Gainera, maila batzuetan ordezkariak ez izateak ere kezka sortzen zizkiola adierazi du, "jubentilek ez daukagu ordezkariak. Seniorretan, berriz, beharrez gero

Xabier Arteaga edo Aritz Solano ditugu parte hartzeko prest. Baina ez dugu kanporaketa hau igarotzea espero".

Kanporaketa zaila

Tamalez, Azpeitia izango du arerio. Aurkaria iaz txapelketan izan zen, eta aurten ere irabazteko aukerak dituen taldeetako bat da. "Zozketan ginenean eta Azpeitia egokitu zitzaigunean, gainerako herrietako ordezkariak marmarrean hasi ziren", adierazi du.

Solanoren ustetan, Lasarte-Oria ere ez da talde txarra. "Beste herri batzuen aurka jokatu gero, aukerak izan genitzakeen aurrera egiteko", onartu du.

Alabaina, talde sendoagoa du aurkariak. Beraz, kanporaketan aurrera egitea zail ikusten du herriko arduradunak.

Jardunaldi bikoitza

Lau eta erdiko txapelketako jardunaldia ere izango dute jokalariek. Horrek bi txapelketetan eragina izan dezakeela buruan du Lasarte-Oriako prestatzaileak.

"Olazabal, Diaz de Gereñu, Urdanpilleta eta Artetxe pilotariek ez dute atsedetik izango. Bi txapelketei aurre egin beharko diete eta ikusiko da nola erantzuten duten", aipatu du.

Etxean hasi

Lehen neurketak hilaren 14an, larunbatean, jokatu dira, Michelin kirol guneko

pilotalekuan, eta, astebetara, Azpeitian jokatu dute bigarren jardunaldia.

Partida borrokatuak jokatzeko espero du Solanok. "Jubeniletan eta seniorretan lan ona egin dezakegu. Hau da, tantoak lehiatu eta emaitza duinak eskuratzea. Kadeteetan zailagoa izango da. Partida bat irabaztea sekulakoa izango litzateke".

Taldeari indarrak emateko, zaltetuen bultzada ere garrantzitsua dela azpimarratu du, eta herritarrei pilotalekura joateko gonbidapena egiten die.

Lau eta erdiko txapelketa

Bestalde, aipatu berri dugun lau eta erdiko txapelketan emaitza ezberdinak erdietsi zituzten Intzako pilotariek, hilaren 7an eta 8an.

Olazabalek irabazi egin zuen kadete mailan. Eroso jokatu, eta Hernaniko aurkaria 6-22 garaitu zuen. Jubentilek, Tolosako aurkaria ez zen aurkeztu neurketara, eta Diaz de Gereñuk ez zuen jokatzeko izan. Urdanpilletak, berriz, norgehiagoka zail bati egin behar izan zion aurre. Oiarpeko ordezkariaren aurkako partida borrokatua izan zen, baina, 17na berdindu ostean, Oiarpeko pilotaria finago ibili eta 22-17 gailendu zen.

Seniorretan ere, Artetxek aurkari gogorra izan zuen, Gazteleku. Nahiz eta ederki borrokatu, 14-22 galdu zuen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Ostadar SKT - Bergara KE Igandea. 10:30. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Universidad de Deusto Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA
Landetxa KE - Ostadar SKT Larunbata. 17:45. Ugalde-Ventas, Irun.
OJM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Ostadar SKT - Danena KE Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
OKM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Tolosa CF - Ostadar SKT Larunbata. 12:30. Usabal, Tolosan.
KADETE 1. MAILA, IGOERA
Zarautz KE A - Texas Lasarteerra CF Larunbata. 09:30. Asti-Txiki, Zarautzen.
K.1. MAILA, KOPA KANPORAKETA
Aizkorri Goierrri FT A - Ostadar SKT A Igandea. 16:45. Alustiza, Seguran.

ARETO FUTBOLA
1. MAILA, AZKEN FASEA
Eguzki Arkupe Rehabilitaciones - TEOP Tolosala Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
JUBENILAK, UDABERRI TX.
Eguzki AF - Anoeta FT Larunbata. 11:45. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOA
SENIOR 2. MAILA
Ostadar SKT - AZ Casa de La Rioja Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR 3. MAILA, 13-16 POSTUA
Mekalki Aloña Mendi KE - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Zubikoa kirol., Oñatin.
J. ERRENDIMENDU, FASE FINALA
Ostadar SKT - BKL Esparru Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.
K. PARTAIDETZA, FASE FINALA
Goierrri UGLE - Ostadar SKT Igandea. 10:45. Aldiri kirol., Urretxun.
BOLEIBOLA
JUBENILAK, FINALA
Aldapeta Maria A - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Pio Baroja kir., Donostian.

KADETEAK, 9-12 POSTUA
Hernani KE 2 - Ostadar SKT Larunbata. 11:00. Herrikide ik., Hernanin.
PILOTA
HERRIARTEKOA
Lasarte-Oria - Azpeitia Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunean.
LAU ETA ERDI, SENIORRA 1. MAILA
Tolosa - Intza KE Ostirala. 19:00. Aztinondo, Lizartzan.
LAU ETA ERDI, JUBENILA 2. MAILA
Hernani - Intza KE (Diaz de Gereñu) Larunbata. 11:00. Udalekoa, Hernanin.
Intza KE (Urdanpilleta) - Gazteleku Igandea. 11:15 (1. partida). Michelin kirol gunean.
LAU ETA ERDI, KADETEA 2. MAILA
Intza KE - Oiarpe Igandea. 11:15 (2. partida). Michelin kirol gunean.
IGERIKETA
ZARAUTZ SARIA
Buruntzaldea IKTko infantil, jubior eta absolutuek B mailako Zarautz Sarian parte hartuko dute. Larunbata. 16:30. Udak kir., Zarautzen.

ILLES BALEARS OPENA
Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire igeriketa egokitutako Illes Balears Openan lehiatuko da Euskadiko selekzioarekin. AXA Ligako hirugarren jardunaldia da. Larunbata. Mallorcan.
IGERILARI OSOA
Buruntzaldea IKTko benjaminen Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa den Igerilari Osoa proban parte hartuko dute. Igandea. Bikuña kir., Legazpian.
GIJONGO HIRIA SARIA
Buruntzaldea IKTko Garazi Etxeberriak XXXV Gijongo Hiria Sarian lehiatuko da Gipuzkoako Selekzioarekin. Larunbata eta igandea. Gijon, Asturiasen.
ATLETISMOA
LIGA JARDUNALDIA
Ostadar Atletismoko kide Enara Gonzalezek eta Naroa Furundarenak Super Amara BAT taldearekin parte hartuko dute Espainiako Kluben Ligako bigarren jardunaldian. Larunbata. Zaragozan.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Ostadar Atletismoko eskolarteko taldekako Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute. Igandea. Berazubi, Tolosan.
TRIATLOIA
MUTRIKUKO TRIATLOIA
Herriko hainbat kirolari Mutrikuko Triatloi Sprint proban izango dira lehiak. Larunbata. 17:00. Mutrikun.
GIMNASTIKA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEko gimnastak amateur mailako Gipuzkoako txapelketan lehiatuko dira. Larunbata. 10:00. Urazu pil., Irunen.
LOKEko gimnastek eskolarteko mailako Gipuzkoako txapelketa dute. Larunbata. 16:30. Urazu pil., Irunen.
UDABERRI TORNEOA, FINALA
LOKE Gimnastika saileko taldeek Udaberri torneo finala jokatu dute. Igandea. 10:00. Urazu pil., Irunen.

Ostadarreko infantil txikia, Ligako txapelaldun

Ligako azken jardunaldian, partida zirrargarria jokatu du Ostadar SKTk, Oiarsoaren aurka. Hirugarren laurden berdinduaren ostean, azken minutuetan erabaki da irabazlea. Talde urdin-beltza 45-33 gailendu da eta infantil txiki mailako txapela eskuratu du

Txintxarri

Ostadar infantil txiki taldeak denboraldiko azken partida jokatu zuen hilaren 7an, Maialen Chourraut kiroldegian. Zirrarez betetako partida izan zen herritarrentzat; Oiarso garaitzeaz gain, Gipuzkoako txapelketa eskuratu baitzuten urdin-beltzek.

Lehen laurdena, ordea, ez zuen aldeko izan etxeko taldeak. Oiarso defentsa lan ederra egin zuen eta 8-11 aurreratu zen.

Arerioak erritmo berean hasi zuen bigarren laurdena; Ostadarrek, berriz, bere defentsa indartu eta erasoan aukerak ongi baliatu zituen, 8 eta 2ko partziala egin eta atsedenaldira 16-13 joateko.

Bigarren zatia berdinduagoa izan zen. Entrenatzaileen aholkuak entzun eta bi taldeek erasoan jokatu zuten. Saskiratzeak ugariak izan ziren eta 27nako berdinketarekin amaitu zen hirugarren laurdena.

Urduritasuna nabaria zen Ostadarreko jokariengan



Ostadarren erasoerako bat. TXINTXARRI

laugarren laurdeneko lehen minutuetan, eta aurkariak ongi baliatu zuen egoera, aurea hartzeko.

Etxeko taldeak ez zuen amore emango, ordea. Egoera irauli eta, euren onena erakutsiz, hamar tanto jarraian egin zituzten infantil txikiko jokalariek.

Epaileak neurketaren amaiera adierazi zuenean, jokalaria eta zaletuak saltoka hasi ziren.

Garaipenaz gain, Liga ere eskuratu baitzuen Ostadarrek.

Nahia Carrillo entrenatzaileak Oiarso taldeko jokalariei eskerrak eman eta egindako lanarengatik zoriondu nahi ditu, "partida ona egin dute".

Horrez gain, prestatzailea pozarren dago infantil txikiko jokalariek sasoi osoan zehar egindako lanarekin: "Denboraldi luze eta gogor baten ostean, lehen postua eskuratu dugu. Harro gaude taldeaz".

Espainiako txapelketa

Junior mailako EASO Gipuzkoa Basket, berriz, Huelvan izan zen hilaren 1etik 7ra, Espainiako txapelketa jokatzeko.

Eñaut Buiza lasarteoriatarra kide duen taldeak Valencia Basket A, EBA eta Aranguren Mutilbasket-en aurka neurtu zituen indarrak F multzoan. Bi partida irabazi eta bat galdu zituen. Tamalez, multzoko bigarren sailkatu zenez, ezin izan zituen final zortzirenak jokatu.

Lorpenak eta ikusleen animoek jokalariek bultzatu, eta Belokik entsegua eta gauzatzea lortu zituen etxeko taldea aurretik jarriz, 19-14.

Urgozoz taldeak, ordea, ez zion garaipenari hain erraz ihes egiten utziko. Metroak irabazi eta entsegua lortu zuen, baita gauzatzea ere. Beraz, 19-21 aurreratu zen, berriro ere.

Jokoa bizia zen eta beltzen bi eraso zapuztea lortu zuen arerioak. Epaileak azken jokaldia izango zela iragarri eta Zornotzako taldeak falta egin zuen. Zigor ostikoa 45 metrora egon arren, Belokik ez zuen zalantzarik egin baloiari ematerakoan. Makilen artetik pasa zen eta partida irabazteko hiru puntuak eskuratu zituzten beltzek, 22-21.

Azken jokaldira arteko lehia bizia izan zen Michelin kirol gunean

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeak gutxigatik eta azken unean gainditu du Zornotzako Urgozoz, 22-21

Txintxarri

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT eta Zornotzako Urgozoz RT taldeetako zaletuek hartu zuten Michelin kirol guneko zelaia, hilaren 7an. Euskal Ligako 2. Mailako neurketa zirrargarria izan zen herrian. Beltzek eskuratu zuten garaipena.

Hasieratik, bi taldeek borroka latza izan zuten jokoan nagusi izateko. Ez zen ez bata ez bestea gailendu. Alabaina, 15. minutuan zornotzarrak izan ziren aurea

hartu zutenak, eta hamar minuturen ondoren, beste entsegu bat egitea ere lortu zuen aurkariak.

Beltzek ez zuten amorerik emango eta Joanes Zendoiaeren entsegu eta Jokin Beloki herritarraren gauzatzeari esker errenta txikitu zuten. Atsedenaldira 7-14 joan ziren.

Bigarren zatian, etxeko taldea jokoa zuzentzen saiatu zen. Eraso ugari sortu zituzten jokalariek eta beltzek jaso zuen fruitua, Gorka Alvarezen entseguari esker.



Oriarte BHI taldea (eskuinean), Gipuzkoako txapelketako podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

Oriarte BHI taldea, Gipuzkoako txapelketan hirugarren

Ostadar taldeko kideek Donostian, Durangon eta Ordizian izan dituzte maila ezberdinetako hitzorduak

Txintxarri

Txapelketaz txapelketa dabilta Ostadar SKTko atletak hilaren 7an eta 8an hitzordu garrantzitsuak izan zituzten: 16 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketa, infantil mailako eskolarteko taldeko Gipuzkoako txapelketa eta 18 urtez azpiko Euskadiko txapelketa. Ederki aritu ziren atleta guztiak eta infantil mailako Oriarte BHI taldea hirugarren izan zen Gipuzkoako txapelketan.

Hilaren 8an Ordizian antolatuta izan zen infantil mailako eskolarteko taldeko Gipuzkoako txapelketa. Atleta gaztetxoek zortzi probatan parte hartu zuten: 80 m., 500 m. eta 1.000 m. lasterketan, 80 m. hesi lasterketa, luzera jauzia, altuera jauzia, pisu jaurtiketa eta 4x80 m. errelebo lasterketa.

Ostadar SKTko gaztetxoek guztira 19,5 puntu eskuratu zituzten eta podiumeko hirugarren mailara igo ziren.

Markak ontzen

Hilaren 7an, larunbatarekin, Donostian eta Durangon lehiatu ziren. Anoetako miniestadioan, 16 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketako hiru proba jokatu ziren: 100 m. zein 600 m. lasterketak eta luzera jauzia.

Lasarte-Oriako taldeko hainbat gaztetxo izan ziren lehian. Horien artean, Oinatz Almagro laugarren postuan izan zen luzera jauzian (4,92), eta Iraia Alkorta 12,97 egin zuen 100 m. lasterketan.

Gaixotasun eta lesioak medio, talde urdin-beltzeko ordezkari bakarra izan zen Durangon

antolatuta izan zen 18 urtez azpiko Euskadiko txapelketan: Unai Riezu 100 m. lasterketan parte hartu zuen eta bere marka pertsonala ondu zuen, 12,01 eginez.

Bestetik, Gipuzkoako 16 urtez azpikoarekin batera, proba libreak egin ziren, eta maila ezberdinetako atletak bildu ziren bertan. Emaitzarik nabarmenenak honakoak izan ziren: Maider Rekondo disko jaurtiketan bere markatik gertu ibili zen, 45,96 m.; Naroa Furundarenak 5,98 metroko jauzia egin zuen luzera proban; eta Aiala Ramosek 25,96 metroko jaurtiketa egin zuen xabalina jaurtiketan.

Eta ez dute atsedetik, hilaren 14an, Enara Gonzalezek eta Naroa Furundarenak Super Amara BAT taldearekin parte hartuko dutelako Espainiako Kluben Ligako bigarren jardunaldian, Zaragozan.

Taldeko alebinak, berriz, eskolarteko taldekako Gipuzkoako txapelketan lehiatuko dira hilaren 15ean, Tolosan.

Podiuma, Zarautzen

Pistatik errepidera salto eginez, Zarauzko IV. Herri Lasterketan bi herritar izan ziren podiumean. Raul Gomez Margallo bigarren izan zen helmugan (27.00), eta Maite Salazar, berriz, hirugarren (34.39).

Bestetik, Gipuzkoako minbiziaren aurkako lasterketa solidarioan ere izan zen herritarrik edo herriko taldeko ordezkariarik, baita Aiako Harriaren mendi lasterketan, Landarbaso Trail proban zein Berastegiko mendi martxan.

Futbol taldeak, azken jardunaldiak jokatzen

Azken jardunaldietan, garaipenek edo porrotek eragina izan dezakete sailkapenean. Igoera zein maila mantentze fasea, kopa edo liga erregularra. Herriko taldeak lehiaketan aurrera egiteko borrokan ari dira; emaitza ezberdinak lortu dituzte, ordea

Txintxarri

Ostadar SKTko Erregionalen 1. Mailako taldeak ezin izan zuen Bergara gainditu hilaren 7an, Michelingo kirol gunean jokatutako partidari. Igoera faseko azken aurreko neurketan, aurkaria nagusi izan zen norgehiagoka osoan zehar.

Lehen zatian aukera ugari sortu zituzten Bergarako jokalariek, baina talde urdinbeltzeko atezaina prest aurkitu zuten euren erasoak zapuzteko. Tamalez, eskuin albotik egindako jokaldi batean, baloia penalti puntura iritsi eta, atzelariak gaindituz, kanpokoak markagailuan aurreratu ziren.

Ettxeko taldeak ez zuen amore emango eta bizpahiru aukera sortu arren, ezin izan zuen baloia sarean sartu.

Atsedendialdiaren ostean, Bergarak erabat kontrolatu zuen joko; Ostadarrek, aldiz, ezin izan zuen ezer egin.

Korner jaurtiketa itxi bat errematatuz, bigarren gola lortu zuen aurkariak.

Ezin igoera jokatu

Igoera fasea amaitzeko neurketa bat geratzen den arren, Ostadar SKTko taldea sailkapeneko azken postuan da, eta ez du aukerarik hurrengo faserako sailkatzeko.



Ostadarreko jokalaria, Bergarako jokalarietatik ihes egin nahian. TXINTXARRI

Raul Rodriguezek eta Unai Iribarrek zuzentzen duen taldeak 3-2 galdu zuen Rotetaren aurka eta igoera jokatzeke aukerak galdu ditu. Atsedendialdira 0-2 joan arren, donostiarrek irauli egin zuten markagailua.

Texas Lasartearra taldeko kadeteek ere ez dute aukerarik izango euren 1. mailako igoera jokatzeke.

Lehiaketan aurrera

Bestalde, Ostadar SKTko Ohorezko Mailako jubenil zein kadete taldeek ere maila eusteko faseari amaiera emango diote hurrengo jardunaldian. Biek ala biek euren multzoko lehen postua

lortzeko borrokatu dute; kadeteek bakarrik lortu dute hurrengo fasean sartzea.

Jubenilak sailkapen buru den Eibarren aurka jokatu zuen azken jardunaldian; 4-0 galdu zuen. Kadeteek, berriz, 2-0 garaitu zuten Aloña Mendi, eta mailari eusteko faseko txapeldun izateko bidean jarraitzen dute.

Jubenil eta kadete mailako kopako sailkatze partidei dagokionez, Ostadarreko kadeteek bakarrik lortu dute aurrera egitea.

Kadete A taldeak 3-0 irabazi zion Arrupe Chaminaderi. Jubenil A taldeak, berriz, 0-2 galdu zuen Dunboaren aurka.

gainera, Euskadiko zein Arabako, Bizkaiako eta Gipuzkoako distantzia motzeko txapeldunak erabaki ziren.

Parte hartzaileek hiru eremuri aurre behar izan zieten: hamar kilometro lasterka, 40 kilometro bizikletan eta azkenik, beste bost kilometro korrika.

Beteranoetan txapeldun

Hiru herritarrek parte hartu zuten Azkoitiko proban: Lasarte-Oriako Trinko Triatloi taldeko Imanol Arteaga eta Iurgi Los

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones, 1. Mailako Ligaren bila

Euskalduna 5-1 garaitu, eta sailkapeneko hirugarren postua eskuratu du Lasarte-Oriako taldeak

Txintxarri

Partida garrantzitsua jokatu zuten Eguzki Arkupe Rehabilitaciones eta Euskalduna taldeek hilaren 6an, Maialen Chourraut kiroldegian. Bi taldeek azken faserako sailkatzea zuten jokoan eta kantxan nabaritu zen.

Nahiz eta azken emaitza 5-1ekoa izan, neurketa berdindua izan zela onartu du Josu Lopez entrenatzaileak: "Partida zaila izan zen eta jokatu aurretik hori bagenekien".

Bi taldeak garaipena buruan zutela atera ziren. Alabaina, Josu Lopez eta Mikel Escribanoren mutilek lan ederra egin zuten, eta aukerak ongi baliatu: "Neurketa paregabea egin dute guztiek; egin duten lanarekin pozarren nago".

Entrenatzailearen ustetan, defentsan eta atean egon da Euskalduna gainditzeko gakoa: "Taldeak defentsan ahalegin handia egin du, eta Aitor atezainak ere partida ederra jokatu du".

Helburua beteta

Garaipenaren puntuei esker, herriko taldea sailkapeneko hirugarren postuan amaitu du Liga eta txapeldun izateko bidean sartu da.

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeko kideek pena dute bigarren postuan mantendu ez izanagatik: "Azken asteetan ez gara fin ibili eta ezin izan dugu gure joko egin. Eta horrek bigarren postua galtzea ekarri du".



Eguzki Arkupe Rehabilitacioneseko jokalaria, erasoan. TXINTXARRI

Hala ere, denboraldiko helburua bete dutela nabarmendu du Lopezek: "Txapelketako azken fasean sailkatzea zen gure xedea eta hori lortu dugu. Fase arruntean ederki ibili da taldea eta lehen lauen artean egotea merezi genuela erakutsi dugu. Pozik nago".

Finalerdi zaila

Finalerdian TEEP Tolosala taldea izango dute aurkari. Bi neurketako kanporaketa izango da. Lehena etxean jokatuko dute.

"Taldea polita du Tolosalak eta zaila izango da gainditzea. Hala ere, etxean jokatzen dugu eta azken partidetan jarrera paregabea izan duten zaletuen laguntzaz, kanporaketa bideratuko duen emaitza lortzea nespero dugu. Gure taldean sinesten dut eta finalean egongo garela uste dut", adierazi du prestatzaileak.

Andoni Illarramendi, duatloi motzeko Euskadiko txapeldun

Zumeatarra taldeko herritarrak beterano 2. Mailako txapela eskuratu du; Gipuzkoako txapeldun ere bada

Txintxarri

Triatloi denboraldia hastear da. Mutrikuko Triatloi Sprint proba izango da lehena. Hilaren 14an, larunbatarekin jokatuko da proba: Gipuzkoako txapelketa, hain zuzen.

Denboraldia prestatu eta gorputzak suspertzeko duatloi denboraldia baliatu dute herriko hainbat kirolariek.

Apirilaren 30ean, esate baterako, Azkoitiko duatloia lehiatu zen. Lasterketa horretan,



Illarramendi, podiumean. MAXIXATZEN

Arcos, eta Zumeatarra taldeko kide Andoni Illarramendi.

Illarramendik lortu zuen hiruetatik sailkapenik onena; ibilbidea 02.07.52ko denboran egin zuen. Sailkapen orokorrean hemeretzigarren izan zen eta beterano 2. mailako txapela jantzi zuen bai Euskadi mailan, baita Gipuzkoa mailan ere.

Trinkoko kide Arteagak 02.14.52ko denbora egin zuen eta Los Arcosek, berriz, 02.26.58 behar izan zituen lasterketa amaitzeko.

ZORION AGURRAK



Pedro
Zorionak, makina! 7 urte bete dituzu dagoeneko, gizontxo bat zara! Oso harro gaude zutaz eta asko maite zaitugu! Aita, ama eta Laura

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitarakoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

KOMIKIA



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

GUARDIAKO FARMAZIAK


OSTIRALA, 13	DE MIGUEL	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 14	LASA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 15	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 16	DE ORUE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 17	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 18	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 19	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92


URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cfgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 13




Larunbata, 14




Igandea, 15




Astelehena, 16




Asteartea, 17



Asteazkena, 18



Osteguna, 19



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

		9	6	8		7		
7	6			1	9	8	4	
8		1		7				5
		8			4		7	
5	9	4	7	3				8
6		7			8	3	9	
1	7					2		
		2	9	5			3	1
9			2	6	1			7

OHARRA

San Pedro Jaietako jardueretan parte hartzeko izena ematea Biyak Bat egoitzan

Biyak Bat egoitzako zuzendaritza taldeak jakinarazi duenez, aurtengo San Pedro Jaietan jokoak eta bestelako jarduera batzuk egingo dituzte.

Izena eman nahi dutenek Kale Nagusiko 40. zenbakiko bulegora joan beharko dute, 10:00etatik 12:30era. Maiatzaren 23ra arte izango izena emateko aukera.

Kiroldegiko udako jardueretan izena ematea martxan

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak uztailean zehar antolatu dituen Udako jardueretako izena ematea ekainaren 17an amaituko da.

Txiki Jump, Gazte Jump eta igeriketa ikastaroak zein kirol udalekuak izango dira haur eta gaztetxoenentzat.

Helduek, berriz, gorputzeko atal ezberdinak lantzeko hainbat jardura izango dituzte: Body zunba, Cross Training, Kardiofit eta Indoor txirrindularitza.

Izena ematea egiteko hiru aukera daude. Maialen Chourraut kiroldegiko bulegora hurbiltzea -astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta asteazkenetan arratsaldeetan ere, 17:00etatik 19:00etara-, 943-37 61 82 telefonora deitzea edo Buruntzaldea Kirola webgunean inskripzioa egitea, maiatzaren 16tik aurrera. Azken bide horretatik ezingo da igeriketa ikastaroetan izena eman.

Heriotzen berri eman

Inguruko norbaiten heriotzaren berri TXINTXARRI-n eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

inmolASARTE

Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan. Esperientzia handia dugu. **Esku onetan zaude!**

943-53 64 81 | 629 63 18 38
Iñigo de Loiola, 2 behea.
LASARTE-ORIA
info@inmolasarte.com

ETXEBIZITZA

SALDU

Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu genuke. Harremanetarako zerbakia: 675 70 39 06

ERRENTAN EMAN

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratuden apartamentua alokagai. 60 metro karratuden lorategia du,

bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Ekainetik irailera alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zerbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argitsua, handia da eta gela guztiek kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zerbakia: 666 32 05 20.

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabiltza. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hilabetean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663935176 (Irati).

LANA

ESKARIA

Goizetan zein arratsaldetan edozein adinetako umeak zaintzeko, ikastolara

eramateko edo bertatik jasotzeko, eta behar izanez gero beraien etxeko lanetan laguntzeko eskaintzen dut neure burua. Harremanetarako zerbakia: 644 98 03 49- Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zerbakia: 695 18 41 79. Prest nago adineko pertsonak orduka zaintzeko edo tabernari zein sukaldari gisa aritzeko. Harremanetarako zerbakia: 663 49 98 41. Garbitzaile lanak egiteko prest nago, orduka.

Harremanetarako zerbakia: 618 81 43 63. Pertsona eskaintzen da interna modura lan egiteko. Esperientzia dut eta berahala hasteko prest nago. Harremanetarako zerbakia: 627 20 61 10. Lan bila nabil. Hoteletan garbiketara lanak egiteko, edo etxeetan. Pertsonak zainduko nituzke orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak. Harremanetarako zerbakia: 671 76 35 58. Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza

ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zerbakia: 676 18 84 11. Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketara... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketara. Harremanetarako zerbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU

Kymco people GTI motorra saltzen dut. 125 c.c., ondo zainduta eta

azterketa teknikoa pasata!! Iker 618 09 80 75.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zerbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakaskari askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zerbakia: 697 45 97 96.

AURKITUAKOAK

Urrezko kate bat aurkitu nuen apirilaren 20an. Galdu duena jar dadila nirekin harremanetan: 626057411 (Maria)

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne)

publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne)

publizitatea@ttakun.eus

646 82 44 66

ESKELA

ESKELAK JARTZEKO


TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**



MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Liemii Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:
Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide
Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola,
Egoitz Epelde, Jose Lanchas
eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzua
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

LASARTE-ORIA Martxa

Errausketaren Aurkako Mugimenduak eta zenbait eragilek (Eguzki, Greenpeace, Ekologistak Martxan eta Donostia Bizirik) martxa antolatu dute, *Zubietako erraustegiaz...zer ez digute esaten?* lelopean. Ezagutarazi dute marxalariak Okendo plazatik irtengo direla, 11:00etan. Elektropapo txaranga eta joaldun talde bat lagun izango dituzte ibilbidean zehar. Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak bat egin du ekimenarekin, eta lasarteoriatarrek animatu ditu parte hartzera. Azpiegitura horren jarduerari buruzko datu ugari partekatuko dituzte antolatzaileek partaideekin, eta baita azken berriak ere. Okendo plaza, 11:00etan.

**LARUNBATA 14****LASARTE-ORIA Martxa**

Errausketaren Aurkako Mugimenduak martxa antolatu du, *Zubietako erraustegiaz...zer ez digute esaten?* lelopean. Okendo plazatik atera eta Zubietako erraustegiraino joango dira. Okendo plaza, 11:00etan.

OIARTZUN Topaketa

Abarka Gobernu Kanpoko Erakundeak topaketa bat antolatu du, Mundu Dantzak izeneko. Hamar talde gonbidatu ditu, horietatik bi Lasarte-Oriakoak: Kukuka eskola eta Semblante Andaluz elkarte. Done Eztebe plaza, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Inaugurazioa

Lasarte-Oriako PSE-EEK egoitza berria inauguratu du. Ekitaldian izango dira Agustin Valdivia alkatea, PSE-EEko idazkari nagusi Eneko Andueza, Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusi Jose Ignacio Asensio eta PSOEn antolakuntza idazkari Santos Cerdan. Kalbario kalea, 11:30etan.

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Gure Esku Lasarte-Oriak aurkezpen ekitaldi bat egingo du, Gure Esku dinamikak udaran egingo duen Pirinioetako Bidea ekimenaren nondik norakoan berri emateko. Antonio Mercero gunea, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Khea Ziather konpainiak *Winona & Grace* antzezlanak ekarriko du herrira. Kultur etxeko auditorioan izango da eta sarrerek 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.

IGANDEA 15**LASARTE-ORIA Zinema**

El secreto de Vicky pelikula proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La ciudad perdida filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Manuel Lekuona, 19:30etan.

ASTEARTEA 17**LASARTE-ORIA Literatura**

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko kideek maiatzeko saioa egingo dute. Natalia Ginzburg idazlearen *Familiako lexikoa* liburua izango dute hizpide. Manuel Lekuona Kultur etxea, 18:30etan.

ASTEAZKENA 18**LASARTE-ORIA Aurkezpena**

Euskararen X. Maratoia aurkezteko ekitaldia egingo dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30etan.

OSTIRALA 20**LASARTE-ORIA Zinema**

Okendo Zinema Taldearen eskutik, *Alcarrás* ikusteko aukera izango dute lasarteoriatarrek. Sarrerek 6 euro balio dute eta sarean nahiz kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:30etan.

OSTIRALA 27**LASARTE-ORIA Irakule Txokoa**

Lasarte-Oriako Muntteri AEKrekin elkarlanean, eta Korrika Kulturalaren barruan, irakurraldi bertsotua antolatu dute. Uxue Alberdi idazle eta bertsolariaren *Dendaostekoa* liburua oinarri hartuta egingo dute saioa. Idazleak bere lanaren pasarte bat irakurri eta, hortik abiatuta, bertsotan arituko dira Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal. Aitor Nova musikaria izango dute lagun. 19:30etan izango da, kultur etxean. Sarrerek 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona, 19:30etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA**M. LEKUONA****'El secreto de Vicky'**

Igandea 15
17:00.

'La ciudad perdida'

Igandea 15
19:30.

ANDOAIN**BASTERO****'El hombre del norte'**

Larunbata 14
19:30, 22:00.

Igandea 15
19:30.

'Go Fish'

Larunbata 14
17:00.

Igandea 15
17:00.

USURBIL**URBIL****'Animales fantásticos: los secretos de Dumbledore'**

Ostirala 13

16:00, 18:50.

Larunbata 14

18:50.

'Doctor Strange en el Multiverso de la locura'

Ostirala 13

15:55, 17:00,

18:00, 19:00,

20:05, 21:15,

22:05, 22:20,

23:10.

Larunbata 14

15:55, 17:00,

18:00, 19:00,

20:05, 21:15,

22:05, 22:20,

23:10.

Igandea 15

15:55, 17:00,

18:00, 19:00,

20:05, 21:15,

22:05, 22:20,

23:10.

'El hombre del norte'

Ostirala 13

15:50, 19:10,

21:50.

Larunbata 14

15:50, 19:10.

Igandea 15

15:50, 19:10.

'La ciudad perdida'

Ostirala 13

19:05, 22:00.

Larunbata 14

19:05, 22:00.

Igandea 15

19:05, 22:00.

'El secreto de Vicky'

Ostirala 13

15:45.

Larunbata 14

15:45.

Igandea 15

15:45.



LABURPENA

'La ciudad perdida'

Zuzendaria: Aaron Nee, Adam Nee. **Gidoia:** Dana Fox, Oren Uziel, Adam Nee, Aaron Nee. **Argazkia:** Jonathan Sela. **Ekoizleak:** 3dot Productions, Exhibit A, Fortis Films Productions. **Herrialdea:** Amerikako Estatu Batuak (2022). **Iraupena:** 120 minutu. **Generoa:** Abenturak, komedia. **Musika:** Pinar Toprak. **Aktoreak:** Sandra Bullock, Channing Tatum, Daniel Radcliffe, Brad Pitt, Oscar Nuñez, Da'Vine Joy Randolph, Patti Harrison, Raymond Lee, Bowen Yang, Joan Pringle.

Asmatutako istorioan harrapatuta

Loretta Sage idazleak (Sandra Bullock) formula honen bidez lortu du arrakasta idazle gisa: toki exotikoetan girotutako nobela erromantikoak sortzen ditu. Inola ere espero gabe, asmatutako azken istorioan harrapatuta geratuko da idazlea, eleberriko protagonistari bitizta errealean

aurpegia jartzen dion Alan-ekin batera (Channing Tatum) lana aurkeztera joan, eta gizon dirudun zoro batek bahitzen duenean (Daniel Radcliffe), liburu idatzi berri horretan azaltzen den altxorra aurkitzen lagun diezaion. Larrituta, Alan idazlea salbatzen saiatuko da, kosta ala kosta.



Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

“PUBLIZITATEA DA
INBERTSIORIK
ONENA”

HORREGATIK...
DESKONTU BEREZIAK DITUGU
HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66 



AURREMATRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra



Administrazioa eta Kudeaketa



Energia eta Ura



Instalazioa eta Mantenua



Fabrikazio Mekanikoa



Elektrizitatea

STEAM
ERASMUS +
DUAL
ETHAZI
Lan Poltsa



Hartu hitzordua!!!

 943-36 46 00

www.lhusurbil.eus